6. atala.— Hazi eta Mindegi-landare Zerbitzuak aldiro-aldiro argitaratuko du Erregistroan idatzitakoa.

7. atala.— 1.— Erregistroak bildurikoa osatu eta eguneratzeko asmotan, inskribaturiko pertsonek eta entitateek hasieran emandako datuen aldaketen berri jakinerazi behar diote.

2.— Halaber, inskribaturiko pertsonek eta entitateek eta horien hornitzaile direnek Hazi eta Mindegi-landare Zerbitzuaren lankide izan behar dute, eskatu adinako argibideak emanez.

8. atala.— Agindu honetan ezarritakoa ez betetzea zigortuko da martxoaren 30eko 11/1971 Legean eta hortik eratorritako gainontzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Hasteko, Hazi eta Mindegi-landare Zerbitzuak ezagutzen dituen establezimenduak, Agindu honen 1.1 atalean zehazturiko ihardueretan aritzen diren establezimenduak, hain zuzen, inskribatuko ditu, geroago argitaratuko dituelarik.

Lehendabiziko argitalpenean agertu ez baina inskribatzeko beharra dutenek jakinerazi beharko diote Erregistroari, hiru hilabeteren epean. Era berean eta epe berdinaren barnean, inskribaturikoetan izandako errakuntzak ere oharterazi beharko dira, behar bezala zuzen daitezen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.— Nekazaritza Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio, komunztadura-harremanak ezarri, egoki uste dituen proposamenak azaldu eta, orokorrean, gura diren helburuak iristeko beharrezko erabakiak har ditzan.

Bigarrena.— Agindu honek argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Gasteiz, 1989.eko urriak 6.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

Artículo 6.— El Servicio de Semillas y Plantas de Vivero publicará, periódicamente, el contenido del Registro.

Artículo 7. 1.— Con el fin de completar y actualizar el contenido del Registro, las personas y entidades inscritas deberán comunicar a aquél, cuantas modificaciones se produzcan en relación con los datos originalmente aportados.

2.— Asimismo, las personas y entidades inscritas, y sus proveedores, deberán colaborar con el Servicio de Semillas y Plantas de Vivero proporcionando cuanta información les sea requerida.

Artículo 8.— El incumplimiento de lo dispuesto en la presente Orden será sancionado de acuerdo con lo preceptuado en la Ley 11/1971 de 30 de marzo y demás disposiciones de ella derivadas.

DISPOSICION TRANSITORIA

Inicialmente el Servicio de Semillas y Plantas de Vivero procederá a la inscripción de cuantos establecimientos tenga constancia de que realizan actividades detalladas en el artículo 1.1 de la presente Orden, procediendo a su posterior publicación.

Aquellos, que resultando obligados a la inscripción no figuren en esta primera publicación, deberán comunicarlo al Registro, en el plazo máximo de 3 meses. Igualmente y en el mismo plazo, deberán comunicarse para su subsanación, las incorrecciones existentes en los datos de los ya inscritos.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta a la Dirección de Agricultura para que establezca las relaciones de coordinación, eleve las propuestas que estime necesarias y dicte, en general, cuantas resoluciones se requieran para alcanzar los fines que se pretenden.

Segunda.— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de Octubre de 1989.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

Agintariak eta Lanarigoa
Autoridades y Personal

Izendapenak, egoerak eta gora-beherak
Nombramientos, situaciones e incidencias

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
(Osakidetza)

2830

ERABAKIA, 1989.eko urriaren 9koa, Osakidetzako Zuzendari Nagusi T. A.»-arena, Luis Susaeta Pecina Jn., Bidasoako Eskualde Ospitalerako, Anestesiologia eta Reanimazio espezialitateko jerarkizatutako zerbitzuan, Sekzioko Buruzagi izendatuz.

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO
(Servicio Vasco de Salud)

2830

RESOLUCION de 9 de Octubre de 1989, del Ilmo. Sr. Director General del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, por la que se designa a D. Luis Susaeta Pecina, Jefe de Sección en el servicio jerarquizado de la especialidad de Anestesiología y Reanimación con destino en el Hospital Comarcal del Bidasoa.

Ekainaren 7ko E.B.O.-n eta Maiatzaren 19ko E.H.A.A.-n argitaratutako Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren 1989.eko maiatzaren 10eko Erabaki batez, Osakidetzaren Osasun Zerbitzuetako jerarkizatutako zerbitzuetan Sekzioko Buruzagiaren lanpostu bat betetzeko lehiaketarako deia egin zen.

Aukeraketa prozedura burutu ondoren eta deialdia araupetzen duten Oinarri arauetako IXan agindutakoarekin bat eginik, Epaimahaiak, horri dagokion esleipen proposamena aurkeztu dio Zuzendaritza Nagusi honi.

Hori dela bide eta maiatzaren 19ko 10/1983 Legeko 6.2.b) at.-ak eta irailaren 8ko 298/1987 Dekretuko 3.d) atalak emandako ahalmenen arauera, zera

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.— Bidasoako Eskualde Ospitalerako eta Anestesiologia eta Reanimazio espezialitatean, Luis Susaeta Pecina Jn., jerarkizatutako zerbitzuko Buruzagi izendatzea.

Bigarrena.— Iragarki hau, Estatuko Buletin Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.— Erabaki hori, Luis Susaeta Pecina Jn.-ri, Bidasoako Eskualde Ospitalari eta horri dagokion nominako Zerbitzuari jakineraztea.

Gasteiz, 1989.eko urriak 9.

Osakidetzako Zuzendari Nagusia,
MARIO GONZALEZ ORTEGA.

Mediante Resolución de 10 de Mayo de 1989, del Director General del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, publicada en el B.O.E. de 7 de Junio y B.O.P.V. de 19 de Mayo, se convoca concurso para la provisión de una plaza de Jefe de Sección en servicios jerarquizados de Instituciones Sanitarias del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza.

Habiéndose llevado a cabo el procedimiento de selección y conforme se establece en la Base IX de las que regula la convocatoria, el tribunal ha procedido a elevar la oportuna propuesta de adjudicación ante esta Dirección General.

En su virtud, y de acuerdo con las facultades conferidas por el art. 6.2.b) de la Ley 10/1983, de 19 de Mayo, y el artículo 3.d) del Decreto 298/1987, de 8 de Setiembre,

RESUELVO:

Primero.— Designar a D. Luis Susaeta Pecina Jefe de Sección del servicio jerarquizado, en la especialidad de Anestesiología y Reanimación, con destino en el Hospital Comarcal del Bidasoa.

Segundo.— Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del Estado y Boletín Oficial del País Vasco.

Tercero.— Notificar la presente Resolución a D. Luis Sasaeta Pecina, al Hospital Comarcal del Bidasoa y al Servicio de nómina correspondiente.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de Octubre de 1989.

El Director General de Osakidetza,
MARIO GONZALEZ ORTEGA.

Bestelako Agintza eta Erabakiak
Otras Disposiciones y Acuerdos

LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

2831

215/1989 DEKRETUA, urriaren 10ekoa, «Altzagako Kirol eremuan Udal Kiroldegiaren Eraikuntza» eta «Altzagako kirol Eremuaren Urbanizazioa» Proiektua gauzatu ahal izateko beharrezko izan daitezen ondasun eta eskubideez, nahitaezko desjabetzapena egin ahal dezan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Erandioko Udala presaz jabetu dadila deklaratzen duena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Erandioko Udalak 1989.eko otsailaren 9an egindako osoko bilkuran hartutako akordioaren bidez, «Altzagako Kirol eremuan Udal Kiroldegiaren Eraikuntza» eta «Altzagako kirol Eremuaren Urbanizazioa» Proiektua burutzeko beharrezko diren ondasun eta eskubideak, nahitaezko desjabetzapenaren ondorioetarako, hasiera baten jendaurrean jarri ziren; gero, Nahitaezko Desjabetzapen Legearen berrogeitamabigarren atalean eta Autonomi Estatutuaren Aldibaterako Xedapenetatik Zazpigarrenean agindutakoaren babespean, Eusko Jaurlaritzari presaz jabetzekotzat aitor zezala eskatzeko erabakia hartu zen.

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

2831

DECRETO 215/1989, de 10 de Octubre, por el que se declaran de urgente ocupación por el Ayuntamiento de Erandio del Territorio Histórico de Bizkaia, a efectos de expropiación forzosa, los bienes y derechos necesarios para la realización del Proyecto «Construcción de Polideportivo Municipal en área Deportiva de Altzaga» y «Urbanización en Area deportiva Altzaga».

Por acuerdo adoptado por el Ayuntamiento de Erandio, del Territorio Histórico de Bizkaia, en sesión plenaria de 9 de Febrero de 1989, se sometieron inicialmente a información pública, a efectos de expropiación forzosa, los bienes y derechos necesarios para la realización del Proyecto «Construcción de polideportivo municipal en área deportiva de Altzaga» y «Urbanización en área deportiva Altzaga»; acordándose posteriormente solicitar ante el Gobierno Vasco la declaración de urgente ocupación de los bienes y derechos afectados por la expropiación forzosa, al amparo de lo dispuesto en el artículo cincuenta y dos de la Ley de Expropiación Forzosa y Disposición Transitoria Séptima del Estatuto de Autonomía